

KONTROL MOZIOA

COVID-19 OSASUN KRISIAN DONOSTIAKO IKASLEEN EGOERARI BURUZKOA

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko irailaren 14ean Pertsonen Zerbitzuan Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Pandemiak bete-betean jo du hezkuntza-sistema lehen egunetik. Hezkuntza-komunitateak, arazo asko pairatu zituen konfinamenduan eta deskonfinamendu prozesuan. Eta ikasturtearen hasieraren data guztiz ezaguna zen arren, administrazio publikoak etxeko lanak egin gabe harrapatu ditu. Hezkuntza Eusko Jaurlaritzaren eskumena bada ere, gogoratu behar da udalek eskumen asko dituztela arlo horretan, zehazki, ikastetxeak egokitzeaz eta mantenua egiteaz arduratzen baita, beste kontu batzuen artean.

Sei hilabete igaro direnean ikasgelak itxi zirenetik, eta ikasturte berriaren egun batzuk igaro direnean, salatu behar dugu Udal Gobernuak ez duela ia ezer egin Donostiako ikastetxeei eta hezkuntza-komunitateei laguntzeko. Ez da soilik pandemiaren ondorioak arintzeko programa berezirik aktibatu ez izana, zentroekin ez dute harremanik izan.

Konfinamendu garaian, EH Biluk bildutako datuen arabera, Donostiako ehunka ikaslek ordenagailurik eta/edo Internetarako sarbiderik gabe bukatu zuten ikasturtea. Eta jakin genuenarengatik, kasu askotan ikastetxeek beren poltsikotik ari ziren materialaren gabeziak betetzen.

Sei hilabete hauetan Udal Gobernuak denbora izan du ikastetxeekin batera ikasturte berria prestatzeko eta bere eskuetan zegoen guztia egiteko, baina hori ez dela horrela izan konturatu gara. Abuztuaren 26an EUDEL, Euskadiko udalen elkarteak, gutun bat bidali zuen haurrak eta nerabeak aurrez aurreko eskolatzea bermatzeko udal espazio publikoak identifikatzeko eskatzen, ikasleak beste toki batean kokatzea beharrezkoa den kasuetarako, eskatutako osasun baldintzak betetzeko xedearekin. Eta hori da Udal Gobernuak egin duen gauza bakarra, Donostiako kiroldegien eta kultur etxeen zerrenda egitea. Hala ere, salatu nahi dugu, zerrenda hori ikastetxeekin hitz egin gabe, auzoetako egoera ezagutu gabe eta eskolen beharrak ezagutu gabe egin dela.

EH Bildurentzat lehentasunezkoa da ikastetxeetara modu seguruan eta adostuan itzultzea. Donostiari dagokionez, beraz, Udal Gobernuak dagokion eskumenen jabe, espazio irekiak eta itxiak ikastetxeen eskura jarri beharko lituzke, mugikortasun segurua sustatu, garbiketa indartu eta arrakala digitalari aurre egiteko neurriak hartu.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Baina, batez ere, Udal Gobernu honek egin beharko lukeena da, ikastetxeekin eta hezkuntza-komunitateekin lankidetzan aritzea eta haien eskaerei erantzutea.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Donostiako eskolekin harremanetan jar dadila egun dituzten beharrak identifikatzeko.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Donostiako eskolekin harremanetan jar dadila ikasleak birkokatu ezin dituen salbuespeneko kasuetarako erabiliko liratekeen udal-espazio publikoen (itxien nahiz irekien) zerrenda elkarrekin osatzeko.
- 3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Donostiako eskolekin harremanetan jar dadila behar den kasuetan mugikortasunaren arloko neurriren bat har dezan, ibilbide seguruak edo bizikletaren erabilera indartzeko.
- 4.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari eskolekin batera hartu ditzala behar dituzten garbiketa- eta desinfektatze-neurriak.
- 5.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari inguruko hezkuntza-komunitateekin eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Lurralde Ordezkaritzarekin lankidetzan eskolen egoerak aztertzea eta behar dituzten baliabideak auzoz auzo antolatzea.

Donostian, 2020ko irailaren 18an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia